

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Garrantzitsua da enpresa baten eta bere bezeroen arteko harremana zehaztea, gure proiektua aurrera atera ahal izateko oinarrizkoak baitira. Guk bezeroak gustura sentitu daitezela nahi dugu, ondorioz aplikazioari zuzendutako korreo elektronikoa zein telefono zenbaki bat jarriko dugu beraien esku edozein zalantza, kezka... izanez gero argitzeko.

Hala eta guztiz ere, gauza puntualak erantzuteko ez bada bezeroekin harreman inbertsonala izango dugu. Gure telefono zenbakia eta korreoa astelehenetik ostiralera 09:00tik 14:00etara egongo dira erabilgarri eta hau argi azalduko da informazio atalean. Atal honetan ere, guri buruzko eta Etxarri buruzko informazioa etorriko dira, bezeroak ziurrago sentiarazteko.



Gure bezeroak pisua alokatzen dutenak ere izan daitezke, baina hauekin ez dugu harremanik edukiko, izan ere, guri Etxarrek emango dizkigu alokatzen diren pisuak eta guk ondoren alokatzean, hauek ordainduko digute pisuaren jabearekin kontanturik eduki gabe. Azken finean, pisuaren jabeak pisua alokatu nahi dutenekin eta Etxarrek eduki du kontaktua eta zerbait izanez gero, beraiek komunika diezagukete.



Harreman automatikoa edukitzeko aukera ere izango dugu, pisua alokatzea erabakitzen dutenean aplikazioaren bitartez egin dezakete ordainketa. Horrela, egin nahi ez dutenek, pisuaren jabearekin ordaintzeko beste bide bat ados dezakete.